

98/2022 FORU AGINDUA, maiatzaren 13koa, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariarena, zeinaren bidez abiarazten baita Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen Foru Dekretuaren proiektua prestatzeko prozedura.

ZIOEN AZALPENA

Azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren bidez euskararen erabilera arautu zen Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan.

Foru dekretu horri dagokionez, zeina administrazioarekiko auzibidean errekurritu baitzen, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 216/2019, 217/2019 eta 218/2019 epaiak eman zituen (528/2017 42/2018 eta 497/2017 administrazioarekiko auzi-errekurtsoak), aipatutako foru dekretuaren zenbait manuren erabateko deuseztasuna deklaratzeko dutenak. Epai horien arabera, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak hizkuntza eremu bakoitzerako ezartzen duen eskubideen lege araubidea aldatzen dute deuseztatutako manuek, eta erregelamendu bidez ezin da aldatu foru lege bidez ezarritako araubidea.

Zehazki, eta besteak beste, 31., 35. eta 39. artikulua deuseztatu zituen, hau da, arautzen dituztenak ele bikotzat jotzen ez diren lanpostuetan

euskara merezimendu moduan baloratzea, eremu mistoan, eremu ez-euskaldunean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu zentraletan, hurrenez hurren.

Epaiak irmo bihurtu direnez, eta haietan xedatutakoa betetzeko, bidezkoa da arau bat ematea Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzeko. Izan ere, euskararen ezagutza dago merezimendu horien artean. Arau horrek berekin dakar hiru foru dekretu aldatzea.

Zehazki, 215/1985 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duena; euskararen balorazioa aldatu behar da lekualdatze lehiaketetan, izendapen askekoak ez diren unitate organikoetako burutzak edo zuzendaritzak betetzeko merezimendu lehiaketetan eta kategoriaz igotzeko lehiaketetan.

Halaber, Nafarroako Foruzaingoko lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duen martxoaren 25eko 57/2002 Foru Dekretua aldatu behar da, sartzeko berariazko lehiaketetan baloratu beharreko merezimenduei dagokienez.

Azkenik, 347/1993 Foru Dekretua, azaroaren 22koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko arauak ematen dituena; baloratu beharreko merezimenduak aldatu behar dira

oposizio-lehiaketetan eta merezimendu lehiaketa bidezko lekualdaketan.

Martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoak, 132.1 artikuluan xedatzen du ezen foru legeen aurreproiektuak eta foru dekretuen proiektuak prestatzeko prozedura arloaren arabera eskuduna den departamentuan abiaraziko dela, xedapen proposamenaren testua idatziz.

Horrenbestez, eta otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuaren bidez esleiturik ditudan eskudantziak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Prozedura abiaraztea, Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen Foru Dekretuaren proiektua prestatzeko.

2. Honako zuzendaritza hau izendatzea proiektuaren prestaketaren eta prozedura horren organo arduradun: Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua.

3. Foru agindu hau Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusira eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio

Publikoko eta Barneko Departamentuko Idazkaritza Tekniko
Nagusira igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 13an

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNeko, FUNTZIO
PUBLIKOKO ETA BARNEKO KONTSEILARIA

Javier Remírez Apesteguía

(Sinadura jatorrizkoan dago)